

**OLAZTI****2018ko zerga-tasak**

Olaztiko Udalak, 2017ko irailaren 28ko osoko bilkura arruntean, 2018an aplikatu beharreko zerga-tasak adostu zituen. Argitara ematen da orok jakin dezan, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legean ezarritakoarekin bat.

**2018AN APLIKATU BEHARREKO ZERGA-TASAK**

Lehena.–Hona hemen 2018an aplikatu beharreko zerga-tasak:

–Eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zerga:

- 1.–Egiazko kostu erreala, 125.000,00 eurora bitarte: %2,5.
- 2.–Egiazko kostu erreala, 125.000,01 eurotik 187.500,00 eurora bitarte: %3.
- 3.–Egiazko kostu erreala, 187.500,01 eurotik 250.000,00 eurora bitarte: %4,5.
- 4.–Egiazko kostu erreala, 250.000,00 eurotik gora: %5.

–Hiri-lurren balio-gehikuntzaren gaineko zerga:

- 1.–Igoeraren urteko portzentajeak: 2,5,aldi guztietan.
- 2.–Karga-eskala: %10,66.

–Lur-ondasunen gaineko kontribuzioa:

- 1.–Hiri-lurreko ondasunen gainekoa: %0,3578.
- 2.–Landa-lurreko ondasunen gainekoa: %0,80.

d) Jarduera ekonomikoen gaineko zerga:

Indizea: 1,40.

Bigarrena.–Erabaki honek 2018ko urtarrilaren batean hartuko du indarra. Zerga-tasa hauek hurrengo urteetan ere indarra izango dute, aldatzen ez diren bitartean.

Hirugarrena.–Erabaki honen aurka, errekurtsio hauetariko bat aurkez daiteke, hautara:

- a) Berraztertze errekurtsioa, organo egileari berari zuzendua, hilabeteko epean, iragarki hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik hasita.
- b) Administrazioarekiko auzi-errekurtsioa, Nafarroako Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Epaitegiari edo Salari zuzendua, bi hilabeteko epean, iragarki hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik hasita; edo bestela,
- c) Gora jotzeko errekurtsioa, Nafarroako Administrazio Auzitegiari zuzendua, hilabeteko epean, iragarki hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik hasita.

Olaztin, 2017ko urriaren 4an.–Alkatea, Mikel Azkargorta Boal.

Iragarkiaren kodea: L1711494